

## SOCIEDAD

# Informatika Fakultateko IXA taldea, itzulpen perfektuaren bila

EHU/UPV-ko irakasleak, Europako zortzi erakunderen partzuergoan, kalitatezko itzulpen automatikoa lantzen ari dira, hainbat hizkuntzatan eskaintzen diren laguntza teknikoak zerbitzuetan



IXA taldea osatzen duten hainbat kide. Guztira hamabi laguneko lan taldea da. / EHU

M.I. | DONOSTIA

23 febrero 2015  
12:13

"Testu bat beste hizkuntza batera itzuli behar zuela, nor ez da desesperatu edo nork ez du, gutxienez, irribarre egin, sarean dauden itzultzaileen emaitzak ikusita?", galdetu du ohar batean Euskal Herriko Unibertsitateko Gipuzkoako campuseko prentsa zerbitzuak, itzulpen automatikorako baliabideak erabili dituen edonork egin duen galdera berbera errepikatuz. Oharrak, dena den, fenomeno irriagarri (edo amorrugarri) horren zergatia ere azaltzen du: "Egungo itzulpen automatikoen arazoa itzulpenen literaltasuna da; hau da, aplikazioak literalki itzultzen du hitza, bere esanahia edo perpausaren sintaxia aintzat hartu gabe". Eta aurreratzen du soluzioa bidean dela: "Egoera hori nabarmen hobe daiteke, partzuergo bat egiten ari den lanari esker: Portugaleko enpresa teknologiko batek eta Europako zazpi unibertsitatek osatzen dute partzuergoa, eta horien artean dago Euskal Herriko Unibertsitatea, Informatika Fakultatearen irakasle hauen bidez: Eneko Agirre, Gorka Labaka, Nora Aranberri, Arantxa Otegi, Mikel Artetxe, Ander Barrena, Koldo Gojenola, Mikel Lersundi, Josu Goikoetxea, Arantza Díaz de Ilarraza, Iñaki Alegria eta Kepa Sarasola -ikastegiko dekanoa".

### Zortzi hizkuntza

QTLearn (Quality Translation by Deep Language Engineering Approaches) proiektuaren helburua da (Europako Batzordearen hiru milioi euroko finantzazioa izan du hiru urterako) metodologia berritzaile bat ikertzea eta sortzea, zortzi hizkuntzaren itzulpen automatikoa lortzeko: euskara, gaztelania, ingelesa, portugesa, alemana, txekiera, bulgariera eta nederlandera. Kalitate handiagoko itzulpenak lortu nahi dira. "Zientzia ikerketako proiektu ambiziozuenetako bat da, azken urteotan itzulpen automatikoaren eta hizkuntzaren teknologien esparruan egin diren artean", azaldu du ikerketaren koordinatzaile zientifikoak, António Brancoc (Lisboako Unibertsitatea).

Lanak lehenengo urterako helburua lortu du: itzulpen sistema bat agertoki erreal batean aplikatzea; zehazki, Portugaleko HF (Higher Functions) enpresak eskaintzen duen informatikako laguntza tekniko zerbitzuan. Enpresa hori partzuergoko kide da.

"Itzulpen automatikoaren bidez PCmedic deritzan on-line kontsultoria enpresaren errendimendua hobetu dugu. Bi urte barru, proiektua bukatzean, are lagungarriagoa izango da, informazio linguistikoa sakonagoa erabiliko dugu eta", dio Eneko Agirre irakasle eta UPV/EHUko baitan proiektuaren buruak.

Baina zertan datza proiektu berri honek? "Interneten bidez, txat batekin, erabiltzaileak informatika arazo bat aurkezten dio aplikazioari, lantzen ditugun hizkuntzetako batean. Aplikazioak arazoaren irtenbidea bilatzen du bere datu basean, eta galdera egiteko erabilitako hizkuntza berearean erantzuten du; hau da, galdera euskaraz egiten bada, erantzuna ere euskaraz emango da", azaldu du Kepa Sarasolak, UPV/EHUko Informatika Fakultateko dekanoa eta proiektuko ikertaldeko kidea. Beraz, zein da berrikuntza? "Egungo itzultzaile automatikoez, oro har, ez dituzte aintzat hartzen hitzen esanahia eta perpausaren sintaxia. Hitz bat hartu eta literalki itzultzen dute. Esate baterako, 'la ministra Pilar del Casillo' itzultzean, 'gazteluaren zutabe ministroa' ematen dute, izen propio bat dela aintzat hartu gabe. Gu harago goaz: lanean ari gara, itzulpen automatikoko sistemak, hitz egokiak bilatzeaz gain, hitz horiek perpausuan zuzen ordena ditzan, arreta berezia jarriz izen berezietan. Horrela, kalitate eta zehaztasun handiagoko itzulpenak lortuko ditugu", azpimarratu du Sarasola irakasleak.

Prozedura soila da. Itzuli beharreko hitzak hartzen ditu sistemak, eta bere datu basean bilatzen du, hainbat testuren artean, zein beste hitzekin konbinatu ohi diren. Ondoren, konbinazio horien arabera ordenatzen ditu perpausuan, esanahia ere aintzat hartuta. Zerbitzu honen ebaluazioak % 60ko gogobetetzea erakutsi du; hau da, sistema erabili duten gehienek uste dute erantzun egokia behar den bezala jaso dutela, galdera egin zen jatorrizko hizkuntzan.

**SIN**  
Sin Comisiones,  
Openbank  
Simplifika. Sin gastos de  
mantenimiento ni por apunte.  
Cuenta corriente gratis  
[www.openbank.es](http://www.openbank.es)

LIGA,  
COPA Y  
CHAMPIONS  
**10€**  
HASTA JUNIO

**C+: AHORA MÁS FÚTBOL**  
Llegan los partidazos de  
Champions. Liga, Copa y  
Champions por 10€/mes + IVA  
HASTA JU  
[www.tienda.plus.es](http://www.tienda.plus.es)

Copyright © Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A. Incluye contenidos de la empresa citada, del medio El Diario Vasco (Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.), y, en su caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.

a disposición como resúmenes, reseñas o revistas de prensa con fines comerciales o directa o indirectamente lucrativos, a la que se manifiesta oposición expresa.